

DESJABETZEEI BURUZKO EAJren MOZIOA

| | |
|----------------|---------|
| OÑATIKO UDALA | |
| Inegistro Data | |
| 2012 AZA 27 | |
| SALBUENA | IRIBILA |
| 2287 | |

1. Oñatiko udalak, hipoteka zordunen babesa indartzeko asmoz hartutako premiazko neurriak, urriak direla usten duelako, Estatuko Gobernuak azaroaren 15eko 27/2012ko errege dekretua aldatzea esijitzen du.
2. Oñatiko udalak, dagokion legediaren aldaketa onartzen den bitartean Estatuko Gobernuak, ohiko etxebizitzaren galera ekidingo duen hipotekaren aldi baterako luzamendua ezartzera, esijitzen du.
3. Oñatiko udalak, Estatuko Gobernuari, Konkurtso Legea, Hipoteka legea, Akzio Zibila Epaitzeko Legea, eta nolabaiteko harremana duen arautegi guztia aldatzea esijitzen du. Guzti hau, besteak beste, pertsonak, neurritz kanpoko klausulak aplikatu izanak jasanarazi dizkien defentsa-gabezia egoeretatik babesteko eta "zordun zintzoak edo ez gezurriak", berriro hazteko aukera izan dezaten.
 - Arautegi aldakuntza honek, pertsona fisikoen, ondare-ardura unibertsalaren printzipioa murriztera zuzendua izan behar du, beraz, fede oneko pertsona zordunaren une horretan bahitura egingarria duen ondarea gauzatu ondoren, gainontzeko pasiboa salbuetsita gera dadin.
 - Arautegi aldakuntza honek, Hipotekaren eskrituran adostutako balioztatzearen balioa eta Hipoteka gauzatzeko prozedura burutzean duen balioa antzekoa izan dadin lortzera, zuzendua izan behar du.
4. Oñatiko Udalak, Eusko Jaurlaritzak, bai alokairu bai jabetza erregimenean, ohiko etxebizitzaren desjabetzea jasateko arriskuan dauden pertsonen prebentzio-bitartekaritza eta aholkularitza bezalako gaien aurre egiten laguntzeko duen hipoteka bitartekaritza zerbitzua hobetzera, esijitzen du.
5. Oñatiko udalak, bere eskumena den neurrian, eta indarrean dauden gizarte babeserako egitasmoen baitan (etxebizitza, enplegua...) etxebizitza bakarretik desjabetuak izan diren pertsonak, giza arreta berezia behar duen taldetzat hartzeko konpromisoa hartzen du.
6. Oñatiko udalak, 15 egunen buruan, desjabetzea gertatzen den unean aurrez aipatutako kolektiboari aplikatzeko jarduera-protokolo bat egiteko konpromisoa hartzen du.
7. Oñatiko udalak, Jarduera Onen Kodea betetzen ez eta desjabetzeak bertan bera usten ez dituzten finantza erakundeekiko bere harremana, berraztertze konpromisoa hartzen du.

Oñati, 2012ko azaroa.

EAJ-PNV